

GIL 70 Goiuriko ur-jauzia



Goiuriko arroilaren ikuspegia, ur-jauzi lehorra atzean dela. Arroilaren hormek Zuhatzuko tuparrien eta kareharri tupatsuen sekzio bikain bat agertzen dute.

Kokapena:

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 58' 33,29" N
Long.: 2° 54' 41,82" W


- **UTM koordenatuak:**

X: 507.206,87 m
Y: 4.758.143,96 m



Nola iritsi

Altubeko portutik, A-2521 errepidea hartu behar da, Goiuri herrirantz. Iritsi baino 1 km lehenago, mendi-bide bat hasten da, begiratokirako bidea erakusten duena. Eskuineko ertzeko plataforma bat da, zeinetatik ikus baitaiteke ur-jauzia. Beheko auzotik abiatzen den beste bide batetik joanda, beste ikuspegi bat eskaintzen duten zenbait toki daude.



Goiuriko ur-jauzia.

GILaren deskribapen laburra

Oiardo ibaiak 100 m inguruko jauzi bat egiten du, Turoniarreko tuparri eta kareharrien artean zulatua. Haitzartea SE-erantz luzatzen da, baina, 1 km aurrerago, NE-era okertzen da, Altube ibairantz.

Atzeranzko higadura bidezko ibai-harrapatze bat da, eta berak eragin du ur-jauzia eratzeara; Altube ibaiak atzeranzko higadura bidez Oiardo ibaiak harrapatzen duen ukondoari dagokio aipatu dugun norabide-aldaketa bortitz hori. Bi ibilguen arteko kota-diferentzia handia dela-eta gertatzen da hori. Oiardo Mediterraneoeko arroan dago, eta bigarrena, Kantauriko arroan. Ur-jauziaren oinean putzu handi bat dago, hormaren oinarria zulatzen duena eta, horren ondorioz, hormaren eta ur-jauziaren atzera egitea eragiten duena.

Behatzeko punturik onena

Ibaiaren eskuineko ertzean dagoen begiratoki egokitua.

Erlazionatutako GILak:

- **Geografikoki:** GIL 57, GIL 69, GIL 109, GIL 114.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 69.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Atzeranzko higadurak duen interes nagusiki geomorfologikoaz gainera, arroilak Zuhatzuko tuparrien ebaki bikain bat erakusten du.				



Ur-jauziaren begiratokian dagoen interpretazio-panela.

Bibliografia espezifikoa

- EGUILUZ, L.; LLANOS, H.; URIBE-ECHEBARRIA, P.; CAMARA, F.; GONZALEZ DE ASPURU, S. eta CERRAJERIA, J. I. (1988). *Itinerarios ecológicos de Alava*. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila, 110 or.
- BASTIDA, F. (2005). *Geología. Una visión moderna de las ciencias de la Tierra*. TREA arg., 683.-687. or.
- MAGNA, 111. zk.
- EVE, 111-II zk.